

GIL 90 Barrika-Galeako paleozabalgunea



Abrasio-paleozabalgunearen airetiko ikuspegia, Galeatik Barrikaraino (amaieran dago). Lehen planoan, Galeako golf-zelaia. Ondo ikusten da paleozabalgunearen gainean eraikitako pasealekua, zeina Punta Galeatik Barrikaraino baitoa.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 23' 17,64" N

Long.: 3° 00' 17,56" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 499.607,97 m

Y: 4.803.990,50 m



Nola iritsi

Behatzeko punturik onenetako bat abrasio-paleozabalgunean bertan dago, Azkorri eta Sopelako hondartzen artean. BI-634 errepidea hartu behar da Sopelan, Landaluze kale-
ra bideratzen duen biribilgunean. Kalearen bukaeran, mendebaldera doan bidea hartu behar da.



Abrasio-zabalgunearen ikuspegi partziala Azkorri-Gorrondatxe hondartzatik.

Deskribapena

Itsasoaren higadurak gainazal lau bat eratu du arroken gainean, abrasio-plataforma bat, olatuen eraginez. Gaur egun, labarren oinetan ikusten da gure kostaldean, itsasbeheran.

Barrika-Galean urgaineratutako abrasio-paleozabalgunea era horretakoa da: gainazal lau bat, Kuarternarioan eratua eta itsas mailatik gora dagoena. Punta Galeatik (Getxo) Barrikaraino azaleratzen da; 7,2 km luze eta 1 km zabal da (g.g.b.). Duela 100.000 eta 50.000 urte bitarteko aldi interglaziar batekoa da; orduan, urpean zegoen lurraldearen zati handi bat. Marearteko abrasio-plataforma urgaineratuak itsas mailaren aldaketan ondorio dira, transgresio eta erregresioek eta/edo altxatze-prozesu tektonikoek eraginak. Gaur egun, Bizkaiko kostan, labar pikoak daude, 20 metrotik gorako garaierakoak.

Behatzeko punturik onena

Abrasio-plataformatik bertatik edo airetik

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 117, GIL 132, GIL 49, GIL 44, GIL 96, GIL 35, GIL 127, GIL 118.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 23, GIL 101, GIL 102, GIL 103.



Abrasio-zabalgunearen ikuspegi partziala Barrika inguruan. Labarra eta tolesak ere ikusten dira (GIL 118).

GIL-aren balorazioa

| Balorazioa | | Baxua | Ertaina | Altua | Oso altua |
|---------------------------------------|------------------------|-------|-----------|-------------|-----------|
| Interes zientifikoa | Geomorfologikoa | | | | ● |
| | Hidrogeologikoa | | | | |
| | Tektoniko/Estrukturala | | | | |
| | Estratigrafikoa | | | | |
| | Paleontologikoa | | | | |
| | Petrologikoa | | | | |
| | Mineral-hobiak | | | | |
| | Beste batzuk | | | | |
| Interes ekonomikoa (erauzketa) | | | Iraganean | Potentziala | Martxan |
| Interes kulturala: | | | | | |
| Oharrak: | | | | | |

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/37-IV.pdf>
- Bizkaiko Foru Aldundia (1990): *Bizkaiko interes geologikoko guneak*. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. 270 or.